

 IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	Espedientea: / Expediente:	Poltsa orokorra 2020WPOL0098
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	154/ 2020
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Gaia: / Asunto:	COVID-19 protokoloa

2020/154 ALKATE DEKRETUA

Covid-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako egoera dela eta, osasun-alerta deklaratu da Euskadin; eta, ondorioz, bere administrazioaren funtzionamenduan eragina izango duten neurriak hartu behar ditu Ibarra udalak

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaian indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU:

LEHENENA. - *Kontratazio prozeduretan larrialdia dagoela adieraztea.*

Ibarra Udaleko organoek zuzenean edo zeharka Covid-19ri aurre egiteko edozein neurri hartzeak justifikatuko du berehala jardun beharra, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Horren arabera, Ibarra udalak neurriak hartu behar badituzte Covid-19ri aurre egiteko, larrialdiko izapidetzea aplikatuko zaie neurri horien ondoriozko beharrei erantzuteko egin behar dituzten kontratu guztiei.»

BIGARRENA. - Justifikazio hau, zuzenean alkatearen erantzukizupean geratuko da.

Ibarra, 2020ko martxoaren 20an


 ALKATEA
 Igor Zapirain Lizarribar